

MUSEO BIKOITZA PROIEKTUAREN AURKEZPENENKO DOSIERRA, 2018

San Telmo Museoa *Museo bikoitza* programa jarriko du martxan, Asier Mendizabalek proposatutakoa, eta gonbidatutako artisten esku-hartzeak ekarriko ditu museora

Museoan egingo diren esku-hartze programa bat da, urteko aldizkakotasunarekin eta gonbidatutako artista baten eskutik. Ibon Aranberri da lehen edizio honetako gonbidatua. Bildumaren eta kontakizun museografikoaren hainbat berrirakurketa ahalbidetzea da helburua, ingurune hurbileneko artisten eskutik.

2018. urtetik aurrera, Asier Mendizabalek 2014an San Telmo Museoan aurkeztu zuen lanari –*Soft Focus*– jarraitutasuna ematen zaio proiektu honekin. **Museo Bikoitza** museoan egingo diren aldizkako esku-hartzeen programa bat da, urtero gonbidatutako artista batek egingo duena, eta museoarekin lotuta lan egingo du artista horrek proiektu berri baten produkzioan. Lan horren emaitza urtebetez egongo da erakusketa-programaren barruan, eta azkenik museoaren arte-bildumari gehituko zaio, egungo une bakoitza San Telmoko bildumaren ondarrera eta kontakizunera gehitzeko premia adieraziz, premia hori ordeztu gabe, betiere. Ibon Aranberri izango da lehen edizio honetako gonbidatutako artista.

Proiektuaren sorrera

San Telmo Museoa berezko duen berezitasuna –museoa bera itxuratu duen metatutako zirkunstantzia historikoen bidez– bere izaera bikoitza da, Mendizabalen ustez. Aldi berean museo etnografiko bat eta arte-bilduma bat izan dela.

Artistak berak azaltzen du zein izan ziren bere gogoetak azkenean *Soft Focus* lanak proposatzen zuen esku-hartze mota sistematizatzea proposatzeko: “2014ko otsailean *Soft Focus* izenburuko lana aurkeztu nuen San Telmo Museoan, museoko bertako bildumako zenbait materialekin horretarako osatutako elementuen multzo bat. Reina Sofia Museoan erakusketa baterako 2011n produzitutako obra bat da *Soft Focus* lana, eta urte horretako Veneziako Bianalean aurkeztu zen gainera. Lanean, San Telmo Museoko objektu etnografiko eta artistikoen bilduma argumentu-aitzakiaz erabiltzen zen, 70eko hamarkadako Sigfrido Koch-ek egindako argazki-inbentarioaren bidez, gogoeta bat garatzeko museo baten ondareak zenbait kontakizun eta interpretazio desberdin izateko moduari buruz. Objektu horien arteko batzuen definizio korapilatsuen eta objektu horiek antolatzen eta kokatzen dituen museografiaren inguruan, betiere egunerokoaren artefaktuen eta nolabaiteko eskakizun estetikoak duten materialen arteko tentsioan. Gogoeta hori gai horien proposamen generiko baterantz lerratu zela bazirudien ere, San Telmo Museoaren beraren berezitasunak gainditu egiten zuen betiere tesi bat adibide gisa adierazteko kasu paradigmaticoaren funtzioa. Artefaktu horien izaera anbiguo horrek korrelatu ia literala zuen Donostiako museoaren kasuan, erakundearen historiaren nortasun-ezaugarri bereizgarrienari dagokionez.

Izan ere, azken zaharberritzearen ondoren, eredu museografiko konkretuago baten alde egin zuen museoak, gizarte-museo deitutakoaren ildotik, baina ezin dugu ahaztu bere historia osoan betiere arazoekin uztartu dituela arte ederretako bere museo-izaera eta museo etnografiko izateko bere bokazioa. Edo alderantziz. Museo baten kontakizuna gauzatzen duen corpusa museoaren ondarea bada, arte-bilduma eta euskal etnografiaren bilduma izan dira oinarria eman diotenak San Telmori, betiere bizikidetzak konplexuan.

Horregatik guztiagatik, gogoeta bati hasiera emateko modua zirudien *Soft Focus* lanak, museoaren berezitasun konplexuari eta museoaren historiari onura aterako ziona, eta ondoren bilduman sartu izanak, aldiz, gogoeta hori erreferentzia egiten zuen corpusean bertan kokatzea zekarren.”

Metodologia

Antzeko testuinguruetan ohikoa dena baino lan-epe eta erakusketa-epe zabalagoetan garatuko da Museo Bikoitza. Praxi artistikoaren begirada partikularra gaineratzeko aukera zabalduko du San Telmo gizarte-museoak proposatutako kontakizuna kritikoki berrinterpretatu, deszentratu, konplexu bilakatu edo aztertzeke. Era berean, lan horren produktua museoaren ondare corpusean txertatzeak konpentsatu egingo luke bilduman obra berria txertatzeari dagokionez zenbait urtez gertatu zen etenaldia. Museoarekin eta proiektuaren koordinatzailearekin lotutako 12 hilabetez lan egiteko enkargua jasoko du artista bakoitzak proiektu ezezagun bat proposatzeko, museoarekin ezarritako harremanaren ondoriozkoa.

Programa honek museoaren funtzionamenduan sartzten duen berezitasuna artearen praxitik ekitea bada, logikoa dirudi alde hori modu koherentean mantentzea programaren zenbait alderditan. Helburu horrekin planteatzen da programaren edizio bakoitza koordinatzeko zeregina txandakako erantzukizun gisa. Proiektu bakoitza egiten duen artistak hurrengo proiektuaren aukeraketan, gonbidapenean edo jarraipenean parte hartzen du. Horrela, epe luzera, programaren metatutako emaitza ez da pertsona bakar baten irizpide partikularrean lotuta egongo, eta, aitzitik, museoarekin konprometitutako kolektibitate baten bidez sortuko da, museoan bertan parte hartzearen bidez.

Edizio bakoitzeko koordinazio-zereginak hainbat konpromiso bilduko ditu, hala nola museoari gonbidapen-proposamena egitea, gonbidatutako pertsonarekin lehen harremana egitea eta proiektuaren zirriborroa egitea, baita lan-egutegi bat ere.

Bestalde, honako hauek izango dira gonbidatutako pertsonak hartutako konpromisoak, besteak beste: museoan sei hilabeteko azterketa-lanaldia egitea, eta ondoren proiektu zehatz bat aurkeztea, bere esku-hartzea deskribatuko duena museoak onar dezan. Onartutako proiektuaren produkzioari emango zaizkio hurrengo sei hilabeteak.

Amaitutako proiektua museoan instalatuko da, egungo ibilbide museografikoaren barruan edo adostutako gunen batean, eta proiektua jendaurrean erakutsiko den urtean, hurrengo edizioaren koordinazioaren konpromisoak bere gain hartuko ditu gonbidatutako pertsonak. Proiektuaren erakustaldi publikoa amaitutakoan, museoaren bilduman txertatuko da produzitutako obra.

Lan-eremu posibleak

-Bilduma:

Oso ugariak dira museoaren ondarearen zati diren objektuak, are gehiago kontuan hartzen badugu funts horien arteko gehienak Gordailuan sartuta daudela. Artefaktuen kopuru harrigarria, haatik, ez da artefaktu horien barietatea bezain deigarria. Museoaren ondarea osatzen duten elementuen (artelanak, egunero erabiltzeko objektuak, artefaktu arkeologikoak, dokumentuak...) heterogeneotasuna eta elementu horien guztien jatorri eta sailkapen askotarikoa erakundearen historian zehar abiapuntu emankorra dira gordetzeko, balioesteko eta sailkatzeko moduen inguruan edozein gogoeta egiteko.

Objektu horiek bilduman amaitu izateko arrazoiak ere –eta ez dira beti arrazoi sendoak izan– narratiba berezia osatzen dute une bakoitzean museoak eskaintzen zuen gizarte-erantzukizuna osatzeko moduari buruz.

Auzoarte bitxiak, berehalako taxonomiak, zehaztapen prosaikoak eta askotariko kontingentziak balizko oinarri bat biltzen dute, horren gainean geure burua ikusteko modu desberdinak haztarazteko; geure burua nola ikusten dugun ikusteko modu desberdinak. Objektu horien alderdi material, formal edo semiotikoarekin lan egitera gonbidatuko gaitu proposamenak, museoaren egungo proiektu museografikoan esku hartzen duten nozioak kontuan izanda (arte, etnografia, historia, egunerokotasuna...)

-Museografia:

Museo-ibilbidearen denborazkotasun narratiboak, zeinean ondoz ondoko etapek kontestualizatutako objektuen bitartekaritzaren bidez historiaren zenbait alderdi azaltzen dituzten kronologikoki, irakurketa lineal eta koherentea lehenesten du museoaren esperientzia gisa. Testuek eta ikus-entzunezkoek, beira-arasek eta ibilbideek pedagogian oinarritutako harremana bideratzen dute museoarekin. Informazio-dispositibo horren ezaugarrietako bat ikusezina izatea da, neurri batean behintzat. Naturaliza dadila. Artearen praxitik egindako esku-hartze batek narrazio-dispositibo horiek ageriko egitea ere izango du sarritan emaitzat. Azterketa bat ez soilik museoaren zati diren edukiena, baita eduki horiekiko harremana osatzen duten prozedura eta mekanismoena ere.

-Testuingurua eta historia

Logikari jarraikiz, proposamen honek garamatzen bidegurutzearen zati garrantzitsu dira historia eta haren irudikapena. Memoriaren alderdiak eta dokumentu edo artxiboen berrirakurketa kontuan hartuko dituen gogoeta batean nahitaez izango da ongietorria iraganaren kontakizunaren berrantolaketa. Dena den, praxi artistikoaren ikuspuntu espezifikoak integratu nahi du proposamenak, eta, hori horrela, ez da ezin ikerketa modu lehenetsiko lan-metodo gisa, eta prozesu espekulatiboak ezartzen saiatuko gara, eta prozesu horiek gehiago egongo dira museorekiko eta haren materialekiko harreman-prozesu zabal baten mende asmoen alde aurreko formulazio baten mende baino.

Ibon Aranberri da gonbidatutako artista Museo bikoitzaren lehen edizio honetan

Ibon Aranberri proposatu du lehen edizio honetako koordinatzaileak proiektuan parte hartzeko, “jada errekonozimendu itzela lortu duen bere obra San Telmo Museoko bilduman txertatuta dagoelako, zeinean irudikapen eskasegia duen, eta testuinguru espezifikoetara lotutako proiektuak egiteko duen prestasun eta abilezia bereziarengatik, sarritan museologiaren kasu zehatzak metodo gisa eta etnografia diskurtso gisa bilduta, deialdi honen enuntziatioak espezifikoki aipatzen dituenak”.

DOSIER DE LA PRESENTACIÓN DEL PROYECTO MUSEO BIKOITZA, 2018

El Museo San Telmo pone en marcha *Museo bikoitza*, un programa propuesto por Asier Mendizabal que incorporará al museo intervenciones de artistas invitados/as

Se trata de un programa de intervenciones en el museo, con una periodicidad anual y por parte de un/una artista invitado/a. El invitado de esta primera edición es Ibon Aranberri. El objetivo es propiciar a una serie de relecturas de la colección y del relato museográfico por parte de artistas del entorno más cercano.

A partir de este año 2018, se da continuidad con este proyecto al trabajo que Asier Mendizabal presentó en el Museo San Telmo en 2014, *Soft Focus*. Museo Bikoitza/ Museo Doble, es un programa de intervenciones periódicas en el museo que realizará anualmente un/una artista invitado/a, quien trabajará en conexión con el museo en la producción de un proyecto inédito. El resultado de ese trabajo formará parte del programa expositivo durante un año para finalmente añadirse a la colección de arte del museo, señalando, aunque no supliendo, la necesidad de incorporar cada momento presente al patrimonio y al relato de la Colección de San Telmo. El artista invitado en esta primera edición es Ibon Aranberri.

Génesis del proyecto

La singularidad que le es propia al Museo San Telmo, a través de las circunstancias históricas acumuladas que le han ido dando forma, es antes que nada la de su condición doble, en opinión de Mendizabal. El hecho de que haya sido simultáneamente un museo etnográfico y una colección de arte.

El propio artista explica cuáles son las reflexiones que le llevaron a proponer sistematizar el tipo de intervención que proponía *Soft Focus*: “En febrero del 2014 presenté en el Museo San Telmo el trabajo titulado *Soft Focus*, un conjunto de elementos completado para la ocasión con algunos materiales de la colección del propio museo. *Soft Focus* es una obra producida en 2011 para una exposición en el Museo Reina Sofía de Madrid y se presentó además en la Bienal de Venecia de ese mismo año. En ella, la colección de objetos etnográficos y artísticos del Museo San Telmo servía, a través del inventario fotográfico realizado por Sigfrido Koch en los años 70, como excusa argumental para desarrollar una reflexión en torno a la manera en que el patrimonio de un museo es objeto de diferentes relatos e interpretaciones. En torno a la problemática definición de algunos de estos objetos y de la museografía que los organiza y enmarca, siempre en tensión entre artefactos de lo cotidiano y materiales de una cierta agencia estética. Si bien la reflexión apuntaba hacia una proposición genérica de estos temas, la singularidad del propio Museo San Telmo desbordaba siempre la función de caso paradigmático con el que ejemplificar una tesis. Si de la condición ambigua de esos artefactos se trataba, en el caso del museo de San Sebastián, esa

dualidad tenía un correlato casi literal en lo que es la más particular seña de identidad de la historia de la institución.

En efecto, el museo, que tras su última reforma se decantó hacia un modelo museográfico más concreto en lo que se ha venido en llamar museo de sociedad, ha sido a lo largo de su historia una siempre problemática unión entre su condición de museo de bellas artes y su vocación de museo etnográfico. O viceversa. Si el corpus que configura el relato de un museo es el de su patrimonio, la colección de arte y la de etnografía vascas son las que, en compleja convivencia, han sedimentado el de San Telmo.

Por todo ello, la presentación de *Soft Focus* parecía una manera de iniciar también una reflexión que sacara partido a esa compleja singularidad del museo y su historia mientras que su posterior inclusión en la colección hacía que esa reflexión se alojara en el propio corpus al que hacía referencia.”

Metodología

Museo Bikoitza se desarrollará en plazos de trabajo y exhibición más dilatados de lo que es usual en contextos similares. Abrirá la posibilidad de incorporar la mirada particular de la praxis artística para reinterpretar, descentrar, complejizar o analizar críticamente el relato propuesto por el museo de sociedad que es San Telmo. De la misma manera, que el producto de ese trabajo quede integrado en el corpus patrimonial del museo es una sinergia que vendría a compensar la interrupción que se produjo durante algunos años en las incorporaciones de obra nueva en la colección. Cada artista recibirá el encargo de trabajar, durante 12 meses, en conexión con el museo y con la persona coordinadora del proyecto para la producción de un proyecto inédito, resultante de la relación establecida con el museo.

Si la particularidad que introduce este programa en el funcionamiento del museo es la de proceder desde la praxis del arte, parece lógico que esa diferencia se mantenga de forma coherente en diversos aspectos del mismo. Con este fin, se plantea la tarea de coordinación de cada edición del programa como una responsabilidad rotatoria. El o la artista que realiza cada proyecto participa de la elección, invitación y seguimiento del proyecto siguiente. De esta manera, a largo plazo, el resultado acumulado del programa no estará vinculado al criterio particular de una sola persona, sino que se irá formando a través de una colectividad comprometida con el museo por medio de su participación en él.

La tarea de coordinación de cada edición supondrá entre otros los compromisos de hacer la propuesta de invitación al museo, realizar el primer contacto con la persona invitada y elaborar un borrador del proyecto y un calendario de trabajo.

Por su parte, los compromisos adquiridos por la persona invitada serán, entre otros: realizar un periodo de trabajo exploratorio de seis meses con el museo, y posteriormente presentar un proyecto concreto que describa su intervención para su aprobación por parte del museo. Los siguientes seis meses estarán dedicados a la producción del proyecto aprobado.

El proyecto finalizado se instalará en el museo, dentro del recorrido museográfico existente o bien en un espacio acordado, y durante el año en que este permanezca expuesto, la persona invitada pasará a asumir los compromisos de la coordinación de la edición siguiente. Una vez finalizada la exhibición pública del proyecto, la obra producida se incorporará a la colección del museo.

Posibles ámbitos de trabajo

-La colección:

Los objetos que forman el patrimonio del museo son numerosísimos, más si tenemos en cuenta el depósito de la mayor parte de esos fondos en Gordailua. La impresionante cantidad de artefactos es, sin embargo, menos llamativa que la variedad de los mismos. La heterogeneidad de los elementos que configuran el acervo del museo (obras de arte, objetos de uso cotidiano, artefactos arqueológicos, documentos...) y la variada procedencia y clasificación de los mismos a lo largo de la historia de la institución son un fértil punto de partida para cualquier reflexión en torno a las maneras de guardar, valorar y clasificar.

Las razones, no siempre consistentes, por las que todos estos objetos fueron a parar a la colección, forman también una narrativa peculiar de cómo se ha ido configurando el relato de sociedad que el museo ofrecía en cada momento.

Extrañas vicinidades, taxonomías sobrevenidas, determinaciones prosaicas y contingencias varias contienen el potencial sustrato sobre el que hacer crecer diferentes formas de ver; diferentes formas de ver cómo nos vemos. La propuesta invitará pues a trabajar con el aspecto material, formal o semiótico de esos objetos, teniendo en cuenta las nociones que intervienen en el proyecto museográfico actual del museo (el arte, la etnografía, la historia, la cotidianidad...)

-La museografía:

La temporalidad narrativa del recorrido museístico, donde las sucesivas etapas explican cronológicamente diferentes aspectos de la historia a través de la mediación de objetos contextualizados, prioriza la lectura lineal y coherente como experiencia del museo. Los textos y audiovisuales, las vitrinas e itinerarios dirigen un tipo de relación con el museo basada en la pedagogía. Parte de la condición de ese dispositivo informacional es que sea, en cierta medida, invisible. Que se naturalice. Una intervención desde la praxis del arte tendrá a menudo como resultado también la visibilización de esos dispositivos narrativos. Un análisis no sólo de los contenidos que forman un museo sino también de los procedimientos y mecanismos que configuran la relación con esos contenidos.

-El contexto y la historia

Lógicamente, la historia y su representación forman parte importante de la encrucijada a la que invita esta propuesta. Un reflexión que tenga en cuenta aspectos de la memoria, la reescritura de documentos o archivos, la reorganización de relatos del pasado será necesariamente bienvenida. Sin embargo, la propuesta busca integrar el punto de vista específico de la praxis artística, por lo que no se privilegiará como método de trabajo ningún modo de investigación y se intentará

implementar procesos especulativos, menos sometidos a una formulación previa de las intenciones que a un proceso dilatado de relación con el museo y sus materiales.

Ibon Aranberri es el artista invitado de la primera edición de Museo bikoitza

Ibon Aranberri ha sido propuesto por el coordinador de esta primera edición para participar en el proyecto “por la pertinencia de su ya reconocidísima obra en la colección de San Telmo Museoa, en la que está insuficientemente representada, y por su particular disposición y habilidad para realizar proyectos vinculados a contextos específicos, incluyendo a menudo los casos concretos de la museología como método y la etnografía como discurso a los que la enunciación de esta convocatoria alude de manera específica”.